

Droga-menpekotasunetako aurrerakuntzei buruzko XVIII. sinposioa

Droga-menpekotasunen Deustuko Institutuak sinposio bat antolatu zuen azaroaren 3an, droga-menpekotasunen tratamenduen inguruko ikuspegi berriei eskainita. Opiazeoen, estimulatzaileen eta tabakoaren adikzioaren tratamenduen berrikuntzan aurrera egiteko eskura dauden ebidentziak interpretatzeko esparru orokorra ezartzea zen helburua. Sinposioa osatzeko, Drogak kontsumitzeko gela nazioarteko sarearen II. bilera zientifikoa egin zen azaroaren 4an.